

Etxe eta baserrien argazkiak

J. Migel Elosegik bildu ditu ▶ 7



Ibarrako Emeterio Arrese plazan egin dituzten txikizioak salatu dituzte

BELDURRA ▶ Jendea «beldurrez» dago eta salaketarik jartzera «inor ez da ausartzen», Udalaren esanetan ▶ 6



Ustez, hainbat gaztek egin dituzte txikizioak Emeterio Arrese plazan. DANI GIBELALDE



GARAZI AZKUE

Haurren ipuin eta bertso onenak saritu dituzte

VILLABONA ▶ Ikastetxeetako haurrak Gurea zineman elkartu ziren atzo sariak jasotzeko udal ordezkarien eskuetatik ▶ 4

TOLOSA ▶

Bidaiatzeko beste aukera azalduko dute gaur Kultur Etxean

Gazte Gunek antolatu du hitzaldia ▶ 3

KIMETZ



GAZTE ARROPA

Nagusia, 23 • TOLOSA • Tel.: 943 67 38 62

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZArekin elkarlanean

Gure harpidedunen artean KIMETZ ARROPA DENDAK oparitutako arropa eta osagaiak zozketatuko ditugu.
EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN!

IGERIKETA ▶

Carlos Peñak lortu du Chapala lakua zeharkatzea

Laurogeitik gora kilometro egin ditu igerian, bizkarrez, lau etapatan banatuta; etapa bakoitzeko hoge kilometro, eta batz besteko zazpi ordu

LEIRE MONTES

Erronka berri bati ekiteko abiatu zen Carlos Peña igerilari tolosarra Mexikora, eta helburua beteta itzuli da jaioterrira: Chapala lakua zeharkatzea lortu du.

Jamay herritik abiatu zen Peña hilaren 13an, eta Jocotepec-era iritsi zen hilaren 16an. Guztira, 80tik gora kilometro egin ditu igerian, bizkarrez, eta lau etapatan banatuta: Jamay-Mezcala, Mezcala-Santa Cruz, Santa Cruz-Ajijic, Ajijic-Jocotepec. Etapa bakoitzeko 20 kilometro inguru egin ditu tolosarrak; batz beste, zazpi ordu igerian.

Peñak marka ezarri du Chapala lakua ekialdetik mendebaldera eta bizkarrez zeharkatzen. Jesus Ramirez haren masajista eta laguna izan du unero bidelagun. «Kayak-en aldemenan izan dut beti, desbideratzen nintzenezan nire posizioa nola zuzendu behar nuen esateko. Izan ere, bizkarrez igeri eginez ez da erraza norabideari jarraitzea», dio Peñak.

Hainbat zailtasun aurkitu du erronka honetan: lirioak, haize korranteak, olatuak —(batzue-



Carlos Peña igerilari tolosarra. AITORTUAK

HAINBAT LORPEN ▶

1989. Ebro ibaia Logroñotik Zaragozara. 200 kilometro.

1990. Miño ibaia (Galizia). 340 kilometro.

1991. Sil-Miño ibaia (Galizia). 400 kilometro.

1992. Esako urtegia (Nafarroa). 26 kilometro, 8 ordu eta 40 minutu.

1993. Ness lakua (Eskozia). 39 kilometro.

1994. Gibraltargo itsasartea. 7 ordu eta 8 minutu.

1995. Neretva ibaia: Mostar-Metcovich (Bosnia); 60 kilometro. Titicaca lakua (Peru-

Bolivia); 220 kilometro.

1998. Kantauri itsasoa, Donostian, beste igerilari batekin erreleboka. 100 ordu.

1999. Ebro ibaia. 927 kilometro.

2001. Magallanesko itsasartea. Alcantarako urtegia; 95 kilometro. Sella ibaia (Asturias); 19 kilometro, 4 ordu eta 10 minutu.

2002. Maracaibo lakua (Venezuela); 204 kilometro.

2003. Bidasoa ibaia; 16 kilometro, 3 ordu eta 7 minutu. Nalon ibaia; 145 kilometro.

tan oso handiak)—, uraren kutsadura... «Baina bihotza helburu batean jarrita gaintitu ditut zailtasun guztiak: munduari jakinaraztea arazoak existituko ez balira inork ez zuen 'irtenbidea' hitza asmatu izango».

«Ilusioz eta gogotsu» ekin zion igerilariak etapa bakoitzari, eta amaieran bertakoak zituenez zain. «Mezcala de la Asuncion-era iristean haur asko nituen zain, laku ertzean. Poncitlango ordezkariak ere harrera ezinhobea egin zidaten. Eta gauza bera errepikatu zen etapa amaiera guztietan. Ez dut ahaztuko bertakoengandik jaso dudana guztia».

Chapala lakua babesten

Lakuaren Lagunak elkarteak Chapala lakua garbitzeko, babesteko eta promozionatzeko ari da egun lanean, eta herritarak sentsibilizatze kanpaina ere jarri ditu martxan. Egindako lanari eta iazko euriteei esker, edukieraren %50 du beteta lakuak, azken hamar urteetan inoiz ikusi ez dena. Carlos Peña tolosarrak laguntza eskaini nahi izan dio elkarteari erronka hau eginez.

HEZKUNTZA ▶

Hainbat eskaintza Lanbide Hastapenean

Informatika laguntzaile, gozogintza eta arotzgingintza ikastaroak, aukeran

L. MONTES

Tolosaldeko Lanbide Hastapenak gozogintza, egur arotzgingintza eta informatika laguntzaile ikastaroak eskaintzen ditu 2004-2005 ikasturterako.

Hainbat fasetan banatuko dira ikastaroak. Lehenean, lanbide hastapeneko 1000 ordu eskainiko dira. Bigarrena, sakontze ikastaroa, 600 ordukoa izango da. Eta hirugarrena, 400 orduko praktikak enpresetan.

Izen ematea ekainaren 1ean zabalduko da, eta 30a arte egongo da zabalik. San Esteban auzoko 20era jo behar da —bigarren pisua—, 11:00etatik 13:00etara. 943 65 19 48 telefono zenbakia- ren eta tolosa.cip@telefonica.net posta elektronikoaren bidez ere egin daiteke matrikula.

Ikastaroak egin ahal izateko baldintza hauek bete behar dira: 16tik 21 urte bitarteko izatea, Tolosaldeko udalerriren batean erroldatuta egotea eta DBHko titulurik ez izatea. Izena emateko orduan argazki bat, Nortasun Agiriaren fotokopia bat, 2003ko errenta aitortpenaren fotokopia eta eskola liburua eraman behar dira.

FUTBOLA ▶

Tolosako nesken taldea, bigarren Kopan

L. MONTES

Denboraldia amaitu berri dute Tolosa CFko neskek. Eta primeran amaitu, gainera. Duela bi hilabete bukatu zuten Liga, eta orain arte Kopako partidak jokatu dituzte. Kopako azpitzapeldunak izan dira Tolosakoak. Azken partidari 3-0 irabazi zieten Debako Amaikak bat taldeari.

TRAFIKOA ▶

Erdiguneko hainbat kale itxi egingo dituzte larunbat arratsaldean

Ibilgailu Klasikoen X. Nazioarteko Azokako moto erakustaldia pasatuko da kale horietatik

L. MONTES

Ibilgailu Klasikoen X. Nazioarteko Azoka egingo dute asteburuan Tolosan. Larunbatean Moto Klasikoen I. Erakustaldia antolatuko dute, eta hori dela-eta trafikoa hontzat aldatzeko izango dira herrian.

Hain zuzen ere, erdiguneko kaleak itxi egingo dituzte hilaren 29an, 14:00etatik 19:00etara. Kale hauetatik pasatuko da

motoen erakustaldia: San Frantzisko ibiltokia, Pedro de Tolosa, Nafarroa etorbidea eta Zumalakarregi. Hortaz, kale hauek guztiak eta zirkuituaren barruan dauden beste hainbat —Oria kalea, Foruen etorbidea, Emeterio Arrese...— itxita egongo dira.

Udalak eta Tolosako Ibilgailu Klasikoen Elkarteak hainbat ohar helarazi nahi diete bizilagunei: egun horretan autoa



MOTORRAK, FERIALEKUAN. U. URREAGA

hartuko duten bizilagunek 14:00ak baino lehenago atera behar dute garajetik; aparkatu behar badute, berriz, 19:00etatik aurrera egin dezatela eskatuko dute.

IKASTAROA ▶

Arku-tiro ikastaroan izena emateko azken egunak

L. MONTES

Udaleko Kirol departamentuak arku-tiro ikastaroa antolatuko du ekaineko. Ekainaren 7an, 9an, 11n, 14an, 16an eta 18an jasoko dira eskolak, 19:00etatik 21:00etara, Ferialekuan. 19an, berriz, praktikak egingo dira tiro eremuan, 09:00etatik 13:00etara. Etzi arte eman daiteke izena 943 69 74 55 telefono zenbakian, 11:00etatik 13:00etara. Abonatuak 25 euro ordaindu beharko dituzte, eta besteak 35.

ASIALDIA ▶

Leioara, Ibilaldira joateko autobusa Galtzaunditik

Urtero bezala, Galtzaundi Euskara Taldeak autobusak antolatu ditu Ibilaldira joateko. Aurten, Bizkaiko ikastolen aldeko festa Leioa-Sopelan izango da igande honetan. Izena ostirala baino lehen eman behar da, 19:00etatik 21:00etara, Galtzaundiren egoitzan (Nafarroa etorbidea 6, behe). Bederatzi euro ordaindu behar dira (bazkide direnek sei euro).

KIROLA ▶

Tolosan izango da Euskal Bizikleta 2005eko ekainean

Euskal Bizikletako etapa bat Tolosan hasi eta bukatuko da datorren urtean, 2005eko ekainean. Horixe ziurtatu zuten ostiralean Udaleko pleno aretoan Tolosako alkate Jokin Bildarratzek eta Euskal Bizikletaren ordezkari Julian Erasok. Hortaz, hurrengo urteko ekainaren 2an helmuga izango du txirrindulari lasterketak Tolosan, eta ekainaren 3an, berriz, irteera.



Bildarratz eta Eraso, udaltxean, hitzarmena sinatzen. HITZA

MUSIKA ▶

Ainhoa Arteta soprano tolosarra Leidorren laster

Ainhoa Arteta soprano tolosarrak kontzertua eskainiko du ekainaren 16an, asteazkenez, Tolosako Leidor aretoan. Ainhoa Zubillaga mezzosopranoarekin eta Pedro Jose Rodrighez pianojolearekin ariko da kantuan, eta antolatuzaileek jakinarazi dute sarreak salgai izango direla ekainaren 1etik aurrera Kultur Etxean. Errezital berezia eskainiko du bere sorterrian.

GIZARTEA ▶

Bidaiatzeko aukera ezberdinen inguruko bigarren txanda, gaur

Lacunza akademiako bi kidek atzerrira 'au pair' gisa edota auzolandegietara joateko zer egin behar den azalduko dute

IRATXE ETXEBESTE

HITZAK hilaren hasieran aurreratu zuenez, atzo izan zen Tolosako Udaleko Gazteria batzordeak ekainaren 3a bitarte Udaleko gazteei zuzenduta antolatu dituen hitzaldietako lehena. Anjel Cuervo bidaiari eta abenturazale tolosarrak diru gutxirekin nola bidaia daitekeen azaldu zuen, eta oinez, bizikletaz edota piraguaz egindakoen berri eman zien, besteak beste, bertan bildutakoei. 15 urte zituenetik bidaiatzen du Cuerdok gisa horretara, eta azken urteotan ETBrako erreportaiak egiten jardun du.

Gaur izango da hitzaldi horietako bigarrena. Lacunza akademiako kide Cristina Lacunza eta Ainize Orozek atzerrira *au pair* gisa eta auzolandegietara joateko informazio orokorra eskainiko dute, Kultur Etxean, 20:00etatik aurrera. Bidaiatzeko modu horiek zer diren, zer aukera ezberdin dauden eta era horretara bidaiatu ahal izateko zer baldintza eta ezaugarri bete behar diren adieraziko dute, adibidez.

Gazteria Batzordeak bi ziklotan banatu ditu hitzaldiak: bidaiatzeko aukera ezberdinei buruzkoa da lehena, eta emantzipazioaren ingurukoa, bestea. Biharko solasaldiak itxiko da lehen zikloa, *La guía esencial de Interrail y el viajero in-*

EGITARUA ▶

Kultur Etxean izango dira ekainaren 3a bitarte Udaleko Gazteria batzordeak antolatu dituen hitzaldiak, 20:00etan.

BIDAIATZEKO AUKERAK

'Au pair', auzolandegietara... joateko. Hitzaldia gaur eskainiko dute.

Travel BUG. *La guía esencial de Interrail y el viajero independiente* liburuaren egileen eskutik, bihar izango da hitzaldia.

dependiente liburuaren egile Ibon Martinek eta Alvaro Muñozek Travel BUGi buruz eskainiko dutelako hitzaldia. Besteak beste, komunikazioa, ekipajea, diru trukaketa, bidaiaren segurtasuna eta egoitza ekonomikoak izango dituzte Martinek eta Muñozek ahotan.

Ekainean, emantzipazioaz

Ekainaren 1etik 3ra, berriz, emantzipazioari buruzkoak izango dituzte hizpide Kultur Etxean. Hilaren 1ean Erretengibeleko teknikari Angel Uranga etxebizitzetara buruz ariko da: babes ofizialeko etxebizitzak, etxebizitza hutsak, Tolosan dauden etxebizitza proiektu berriak, bigarren eskuko etxe-

bitzitzak erostean dauden diru laguntzak, alokairuan denaren eskubideak... gai hartuta mintzatuko da gazteen aurrean.

Hilaren 2an, asteazkenarekin, kreditu eskaeraren inguruko azalpenak emango ditu Javier Bartolome, ekonomilari eta Banco Atlantico-ko zuzendariak: kreditu bat nola eskatu behar den, kreditu bat emateko jartzen dituzten baldintzak, kredituen portzentai ezberdinak... Eta hitzaldietako azkena, ekainaren 3koa, erregimen zibilei buruzkoa izango da. Milder Alegria abokatuak erregimen zibil ezberdinei buruz jardungo du, eta baita erregimen zibil ezberdin horietako bakoitzaren abantailen eta desabantailen inguruan ere. «Gazteei interesatzen zaizkien gaiak» dira guztiak.

MUSIKARIA 2004 ▶

Elkano Browning Cream hirukotearen kontzertua

Musika Eskolan ariko dira gaur Fran Iturbe, Mikel Azpiroz eta Karlos Aranzegi 19:00etan

I. ETXEBESTE

Musikaria 2004 ekimenaren baitan, Elkano Browning Cream taldea kontzertuan ariko da gaur, Musika Eskolako areto nagusian, 19:00etan. Hiru kidek osatzen dute taldea: Karlos Aranzegi (Bide Ertzean, Matt Harding, Mikel Erentxun eta Alex Ubago) tolosarra baterian, Fran Iturbe (Juan Carlos Perez, Gari, Mikel Erentxun eta Ana Pozas) kitarran eta Mikel Azpiroz (Blues Stop, Lau Behi, Matt Harding, Jabier Muguruza, Fermin Muguruza eta Mikel Erentxun) teklatuan.

Musikariaren agenda delana eta atzeratuz joan den egitasmoa da Elkano Browning Cream; azkenean, neguan egin dute lehenengo kontzertua. Bestelako taldeetan elkarrekin aritzen diren musikariak dira hirurak: Iturbe eta Aranzegi Bide Ertzean taldean, Azpiroz eta Aranzegi Mikel Azpiroz Trio eta Matt Harding Project taldeetan eta hirurak ba-

tera Mikel Erentxunen taldean. Azpirozek konposatutako abestiek eta jazz-funk estiloko bertsiok osatzen dute hirukoaren errepertorioa.

Herri musika tresnak

Udal Musika Eskolak antolatutako Musikaria astearen baitan, Herri Musika Tresnen Topaketa prestatu du Iñaki Salvadorrek zuzentzen duen Giroarte dultzaina taldeak larunbaterako. Iparraldetik, Bizkaitik eta Gipuzkoatik etorritako dultzainariak, abokaliariak, trikitilariak, txistulariak eta txalapartariak elkartzeko dira bertan. 10:00etan kalejira egingo dute Alde Zaharretik Zezen-plazaraino, 11:30ean tabernarietako eskainitako ha-maiketako egingo dute eta eguerdian kalejirak egingo dituzte herrian zehar. Bazkariarekin emango diote amaiera egunari, Emeterio Arrese kaleko Zaharren Egoitzan izango den bazkariarekin.

hilberriak ▶

eskelak hartzen dira: 19:00ak arte ▶ 687 53 02 58 ▶ tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Jose Maria San Sebastian Izagirre
JAUNA

Atzo hil zen, 59 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

— Golan bego —

Bere emaztea: Mari Karmen Ormazabal; seme-alabak: Maria, Patxi eta Nerea Izagirre; anaia: Rikardo; ezkon-arrebak: Maria Jose Salaberria eta Arantxa Ormazabal; osaba-izebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otituz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzela GAUR ASTEAZKENA, arratsaldeko ZAZPIETAN, SAN FRANCISCO parroki elizan, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

helbidea ▶ Zuberua auzunea 1-4, ezberra oharra ▶ gorpua Tolosako Funeraria Vascongadako Tanatorioan dago gaur 16:00ak arte.

TOLOSA, 2004ko maiatzaren 26a

VILLABONA ▶ KULTURA

Ipuin eta bertso lehiaketako sariak banatu ziren atzo

Villabonako ikastetxeetako haurrek Gurea zinema bete zuten atzoko ekitaldian



Lehen hezkuntzako ikasle sarituak. G. AZKUE



Bigarren Hezkuntzako ikasle sarituak. G. AZKUE

GARAZI AZKUE

Atzo plazaratu ziren Villabonako Udalak antolatutako bertso eta ipuin lehiaketako irabazle-izenak.

Villabonako Udaleko Euskara eta Hezkuntza Batzordeak, herriko ikasle gaztekoen artean idazteko trebetasuna sustatzeko idazlan sariketa antolatuta zuten. Eta atzo banatu zituzten lehiaketako sariak.

Lehenengo sartzan, Bigarren hezkuntzako ikasleak izan ziren, Gurea zinemako aulki guztiak bete zituzten irabazle-izenak zein ziren jakiteko irrikitan.

Oholtza gainean, Iñaki Zalakain eta Amaia Agirre agertu ziren ikasleak aulkietan eseri zirenean. Villabonako ikastetxeetako ikasleei ongietorria eman zien Zalakainek gitarraren laguntzaz. Ondoren, Amaia Agirrek, bertso saileko irabazle-izenak eman zituen bertsoetan. Eta Iñaki Zalakainek, ipuin alorreko irabazleak aipatu zituen kantuan.

Sariak banatzeko ardura,

Udaleko euskara zinegotziak, Xabier Zabalak eta Maite Arregi, Villabonako Udaleko euskara teknikariak izan zuten.

Irabazlearen baten izena entzun orduko, oihu hotsak eta txalo zaparradak entzuten ziren Gurean, ekitaldi alaiak izan zuten atzokoak.

Bigarren Hezkuntzako ikasleek bukatu orduko, Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. zikloko ikasleek bete zuten aretoa. Haei ere, urduritasuna nabari zitzairen ekitaldiaren aurrean. Ikasle hauekin ere, modu berean banatu zituzten sariak.

Sari ugari

Bai bertsoetan eta baita ipuin alorrean ere, lehen sarituak, kirol materiala eskuratu zuten. Bigarren sariaren irabazleak joku didaktikoak eraman zituen etxera, eta hirugarren postuan gelditutakoek, eskolako materialarekin atera ziren ekitalditik.

Maila gehienetan egon ziren sariak, baina, Lehen Hezkuntzan, 3. eta 4. mailako ikasteen

artean ez zuten bertsoetan sariarik banatu, mailarik ez baitzuten eman.

Lehen Hezkuntzako ikasleekin artean, 3. eta 4. mailakoek idazitako ipuin onenaren saria *Jagurraren lagunak* ipuinak irabazi zuten. 5. eta 6. mailakoekin artean, *Ortzararreko zazpi koloreak* ipuinak irabazi zuten lehen saria. Eta Bigarren Hezkuntzako ikasleekin artean, *Zoritxarreko gaua* ipuinak lortu zuten lehen postua.

Bertsoen sailean, berriz, 5. eta 6. mailakoetan, *Irakaskuntza* bertsoak lortu zuten lehen saria. Eta Bigarren Hezkuntzako ikasleekin artean, *Inuzenteen eguna* bertsoak jaso zuten onenaren saria.

Lan saritu guztiak, Villabonako Udalak argitaratu egingo ditu hurrengo urtean zehar. Eta aurten zorterik izan ez dutenek hurrengo urtean ere izango dute beren aukera ipuin eta bertso lehiaketan.

IRABAZLEAK ▶

LEHEN HEZKUNTZA

3. eta 4. maila.

Ipuina

1. Mikel Otaño
2. Leire Padilla
3. Eider Urkola

5. eta 6. maila.

Ipuina

1. Aitor Ebezarreta
2. Ixiar Iturzaeta
3. Arantxa Agote

Bertsoa

1. Irati Olazabal
2. Kepa Iguaran
3. Jone Iriarte

BIGARRREN HEZKUNTZA

Ipuina

1. Alaitz Usabiaga
2. Tomas Lizardi
3. Aiora Amonarriz

Bertsoa

1. Oihana Iguaran
2. Ainhoa Barandiaran
3. Joseba Iturbe
4. Jokin Alkizaletxe

AIZTONGO ▶

Urkiolara irteera Aiztondoko jubilatuentzat

Ekainaren 13an izango da irteera; izena emateko azken eguna ostirala da

G. AZKUE

Aiztondok, bailarako jubilatuentzat irteera antolatu du ekainaren 13rako.

Aiztondotik abiatu eta San Antonio eguna dela-eta, Urkiolara joango dira. Goiza pasa ondoren, Ondarroara joango dira, bertan bazkaltera. Arratsaldea ere Ondarroan pasako dute.

Ostirala baino lehen eman beharko dute izena joan nahi dutenek. Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatera deitu beharko dute horretarako, 943 69 39 30 telefonora.

Ordaintzeari dagokionez, Larraulgoek ekainaren 7an jo beharko dute 17:30ean, liburutegira. Alkizan, 10ean, 17:00etan liburutegian, eta Adunan, 8an, 17:30ean liburutegian.

ZIZURKIL ▶

Festetako lehen bilera gaur Atxulondon

G. AZKUE

Irailako festak antolatzeko txanda iritsi da zizurkildarrentzat. Lehen bilera gaur egingo dute Atxulondo kultur etxean. Festak antolatzeko bilduko dira, 20:00etan. Herritar oro dago gonbidatuta bilera honetara.

IBARRAKO Garagardo Festa

dataren artean!

zkia: **226**

Afariko saria jasotzeko 943671627 zkira deitu

Garagardo festako arduraduna LAUTREK BIDAIAKen eskutik bidai baten saria ematen.

www.tolosaldeko-hitza.info

▶ sar zaitez eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

ALEGIA ▶ UDALA

San Juan kalea oinezko bihurtzeko proposamena

Egindako bilera bereziaren ondoren, behin behineko proposamena aurkeztuko du batzordeak ekainaren 7an

OLAIA ESKITXABEL

San Juan kalea oinezko bihurtze aldera, bilera berezia egin zen apirilean; bertan, udal ordezkariak, gai aztertzen ari den batzordeko kideak, herritarrak... bildu ziren. Bertan, proposamen zehatza lantzeko konpromisoa hartu zuten batzordeko kideek.

Orain, landutako proposamena herrian banatu dute eta herritarrei aurkeztuko diete, ekainaren 7an udaletxean egingo den bileran. Proposamen hori iritziak jasotzeko epean aurkitzen da; planteamendu eta ikuspuntu berriekin osatu beharko da bilera horretan. Herritarrek udaletzeko bulegoetan edo buzoian eta batzordean egin ahal izango dituzte ekarpenak.

Behin betiko proposamena onartu, martxan jarri eta sei hilabetera bilera egiteko konpromisoa ere azaltzen da proposamenean. Bertan, sistemaren emaitzak aztertuko eta behar dena zuzenduko dira.

Proposamen desberdinak

San Juan kalea pibotekin istea aurrikusten da proposamenean. Horiek, Kalegoran, Tontokalen eta Kalebeheran joatea proposatzen du batzordeak.

Kalearen norabideei dago-kionez, bi aukera jasotzen dituzte. Kalea bi norabideetako izatea eta Tontokalea istea aipatzen da, alde batetik. Kasu



San Juan kalean pibotekin istea proposatzen du Batzordeak. HITZA

honetan, sartu irteerak Kalegoran eta Kalebeheran jarriko liriateke. Beste aukera kalea norabide bakarrekoa izatea da. Kaleak sarrera Kalegoran eta Kalebeheran izango luke; irteera, berriz, Tontokaletik izango litzateke.

Txartela sistema

San Juan kalea oinezkoen kalea den aldetik, debekatua dago itxitako guneetatik aurrera ibilgailuak ibiltzea.

Baina badaude salbuespenak: karga-deskarga egitean, itxitako zonaldean autoa garajeetan sartzean eta larrialdietako eta zerbitzuetako ibilgailuen kasuan.

Salbuespenezko kasu horie-

tarako itxitako puntuetan era-bilgarri izango den txartela sistema jarriko da martxan.

Txartel horiek San Juan kalean garajea dutenei eta dendari edota ostalariei emango zaizkie. Garajea dutenei, kotxe bakoitzeko plaza edo lekuagatik emango zaie.

Denda edo komertzio bakoitzak txartel bana izan ahaliko du. Txartelak, bestalde, udaletxean eskatu eta emango direla esaten da proposamenean. Eta, txartelen eskaera urtero berritzea proposatzen da. Karga eta deskargako ordutegia ere zehazten da: egunero, 7:30etik 12:30era eta larunbatetan, 7:30etik 11:00etara irekiko da kalea. Igandeetan, berriz, itxita egongo da.

KIROLA ▶

HITZAko 14 partida, jokatu ziren asteburuan

Gaur, kadete mailako bi partida jokatuko dituzte Bidaniako pilotalekuan



Eskualdeko herri desberdinetan jokatzen dira partidak. D. GIBELALDE

O.ESKITXABEL

Asteburuan HITZA txapelketako partida ugari jokatu dira. Benjaminak, alebinak, infantilak eta etorkizunekoak arituko dira norgehiagokan.

Gaur, Bidanian kadeteen partidak izango dira. Bi partida jokatuko dituzte. Roponek Otxandorena izango du aurkari eta Villaro, berriz, Garziaren aurka ariko da aurrez aurre.

ASTEBURUKO PARTIDEN EMAITZAK ▶

Albizturren, Alegian, Adunan eta Tolosan jokatu dira hurrenez hurren HITZA txapelketako partidak hauek:

Irastorza-Santxo 0; Gorostidi-Gailurralde 16. Lasa-Lopetegi 3; Aizpurua-Aizpuru 16.

BENJAMINAK

Imanol-Maiza 16; Artola-Encinas 13. Salbarredi-Matxinea 6; Zelaia-Labaka 16. Garin-Ansa 16; Arrospide-Ormazabal 3. Amiano-Rezola 5; Galarraga-Aburuza 16.

INFANTILAK

Olaetxea-Ulaga 18; Pagola-Fernandez 0. Agirrezabala-Arakistain 18; Olazabal-Urruzola 13. Lobato-Arzelus 18; Garmendia-Lazkano 0. Erauskin-Lobregat 15; Lasa-Ezkurdia 18.

ALEBINAK

Arruti-Otaegi 16; Agirre-Manzisor 13. San Sebastian-Castro 16; Zinkunegi-Oruna 1.

ETORKIZUNEKOAK

Erauskin-Aranzabe 9; Renobales-Etxegarai 22. Loiarde-Apeztekoa 9; Zubietaretegi 22.

IRAGARKI LABURRAK ▶



Anoeta. Etebizitza eta garajeak, eraikuntza berriak, azken aukerak.
Anoeta. 370 m²-ko 2 pabiloi modulotan salgai, berriak.
Tolosa. Etxe abikia. 180m², lau gela, bainugela eta komuna. Altzariz hornitutako sukaldeak.
Tolosa. Nafarroa etorbidean 140m²ko etxebizitza. Garajea aukeran.
Tolosa. Pablo Gorosabel kalean, garaje ibia salgai. 16m²koa.
Ibarra. 85 m²ko etxebizitza. Berrituko. Lehenengo pisua. Kanpoaldera.

Ibarra. 85 m²ko etxebizitza. Egoera onean. Altzariez hornitua. 198.335 euro.
Donostia. Rodil zeharkalean 42 m²-ko apartamentu berritua, erabat kanpoaldera. 234.400 euro.
Itsasondo. Eraikuntza berriko etxebizitza; duplexa eta jardina beheko solairuan.
Alegia. Berrikuntza behar duen etxebizitza salgai; hirugarren pisua, garajea eta trastelekua.
Alegia. 60 m²ko etxebizitza; berrituko. 123.800 euro.

Jatetxea Hernialden. Hernialden, beharrezko guztiarekin hornitutako jatetxea; aparkaleku zabalarekin eta sagardotegiarekin uztartu daiteke.
Aia. Baserrira salgai, bi solairukoa, bakoitza 250 m²-koa, gustu handiz berritua, 61.000 m²-ko lursailarekin hornitua. Bi etxebizitza egiteko aukera.
Lizartza. Solairuko 130 m² dituen hiru solairuko baserri berritua.
Lizartza. Berrikuntza behar duen baserrira. 21.000 m² ko lursaila.
Lizartza. 14.000 m²-ko pabiloiak

salgai. Eraikuntza berrikoak.
Belauntza. 1.060 m²-ko pabiloia, erabat garbia, argitsua eta garabiarekin.
Belauntza. 264 m²-ko eta 275 m²-ko pabiloi berriak salgai. Estreinatzeko.
Aizarnazabal. 50.000 m²-ko lursaila salgai.
Matxinbenta. Berritu beharkeko lau solairuko etxebizitza.
Legorreta. 1.000 m²-ko pabiloia salgai, 5.000 m² dituen lursailaz hornitua, erosteko edo alokatzeko aukera.

IBARRA ▶ GIZARTEA



Baldosak. «Errotik atera eta hautsi» egiten dituztela salatu dute udal ordezkariak. D. GIBELALDE



Arkupetako bankuak. Horietako bat, hautsita. D. GIBELALDE



Garajea. «Sutea» izan zela aipatu dute. D. GIBELALDE



Zikinkeria. Egur pusketak teilatuan. D. GIBELALDE



Iraulita. Uzturpe ikastolako mapa mundia, botata. D. GIBELALDE

Emeterio Arreseko «txikizioak» salatuz

Udal ordezkariak aipatu dutenez, «inor ez da ausartzen salaketarik jartzera eta jendea beldur da bertara sartzeko»

DANI GIBELALDE

Kezkatuta dira hainbat herritar eta udal ordezkari Emeterio Arrese plazan gertatzen diren «txikizioekin». Arazoa aspalditik omen dator, baina egunetik egunera «egoera okerrera» doala salatu dute.

Udal ordezkariak aipatu dutenez, «18 urte inguruko sei bat lagun egoten dira egunero» Emeterio Arreseko arkupeetan. «Aspertzen direnean, gauzak hausteari ekiten diote,

eta azkenaldian, gero eta gehiago». Diotenez, bizilagun askok eta zenbait udal ordezkari ezagutzen dituzte «nortzuk diren, baina inor ez da ausartzen salaketa bat jartzera. Plazan sartzeko beldurra ere badu jendeak». Udalekoek Erztzaintzarekin behin baino gehiagotan hitz egin dute, baina «salaketarik ezear, ezin dutela ezer egin erantzun digute. Jendea kezkatuta etorri zaigu, baina guk ezer gutxi egin dezakegu. Era berean, bideokame-

rak jartzeko proposamena egin digute, haiek harrapatzeko». Txelo Romeo alkatearen arabera, «bideokamerak jartzeara aukera bat izan daiteke. Ez dugu ezer erabaki, baina ea zer iruditzen zaion jendeari. Hori ez da erraza, kamerak jarriz jendearen intimitate eskubideak sartzan direlako jokoan». Romeo gaineratu duenez, «gure esku dauden baliabide juridiko guztiak erabiliko ditugu egoera konpontzeko».

Udal ordezkarien esanetan,

besteak beste, «Arane iturritik dauden bankuak errotik atera, —pisu handiko hormigoia eta guzti— eta Emeterio Arreseko arkupeetara eramaten dituzte. Orain arte, bertan egin dituzte txikiziorik handienak. Zerrarekin bankuak moztu, egur pusketak ebaki, mailuarekin futbol zelaiko harrizko harmailak puskatu, pintadak, arkupeetako bi argi foko izorratu, bertako baldosak errotik atera, txikitu, eta haien zakur bati bota jolasteko... Bihurkin bat erabiltzen dute tornuzilak kendu eta bankuak tokiz aldatzeko». Era berean, «eragindako kalteak» dirutan, «handiak» direla nabarmentu dute.

Duela bi aste banku berriak ipini zituzten brigadakoek, «aurrekoak hautsi zituztelako, eta orainok ere bai. Gau batzuetan ere zalaparta handia sorrarazten dute, baina inor ez da ausartzen haiei zuzenean zerbait esatera».

Ostegunean, Emeterio Arrese plazan, garaje bateko larrialdi irteerako eskaileretan, «zabor pilako koltxo bati su eman eta garajeko bi autok kalteak jaso zituzten. Joan den larunbatean ere txikizio eta zalaparta ugari eragin zituzten».

Igande arratsaldean, berriz, Uzturpe ikastolaren atarian dagoen mapamundia —Inauterietarako erabiltzen zutena— «irauli zuten» eta ondoan dagoen «Egi baserriko baratzera bota zuten». Egi baserriko gizonak adierazi duenez, «18 bat urteko sei bat lagun zeuden ilaran jarrita, ezer egin gabe ikastola atarian. Ez nituen eza-gutzen. Susmagarria iruditu bazitzauden ere, ez nion garrantzia handirik eman eta lanean jarraitu nuen. Ondoren, eztanda handi bat entzun genuen emazteak eta biok; orduan ohartu ginen mapamundia bota zutela. Bertara iritsi ginerako ez zegoen inor».

HITZA, eskualdeko plaza
Milaka aleko tirada egunero; etxera banatuta

661 678 818
Toki aproposa iragartzeko

LEITZA ▶

Larrain HPk ilegalizazioa salatzen mozioa sartu

Atzo urtebete burutu ziren hauteskunde haietaz ariko dira ostiraleko batzarrean

J. ASTIBIA

Atzo, maiatzak 25, Larrain Herri Plataformak mozioa sartu zuen Leitzako Udalean, hain zuzen ere duela urtebete burutu ziren udal hauteskundeetan Alderdien Legea dela medio aurkezterik izan ez zutela eta, urtebete honetako «gertaeren kokapena egin eta horren aurrean erabaki politiko bat» hartzeko helburuarekin. Alegia herritar guztiak eskubide politiko eta zibilen jabe direla aldarrikatzea eskatzen da eta horren aurrean pauso praktikokoak ematea, zehazki «1985eko Erregimen Orokorreko Lege Organikoan jasotzen den formulaz, herritarrek aukeraturiko zinegotziak eskubide osoz kargua hartu dezaten».

«Euskal Herriko historia garaikideko egunik tristeenetarikoa» bezala jotzen du iazko maiatzaren 25eko egun hura Larrainek aurkeztu duen idatzian, hain zuzen ere milaka herritarrek, egun hartan eman zuten iritzia eta erabakia «beste behin ere, errespetatua ikusi ez zutelako».

Beste atal batean hauteskunde kanpaina haren ezugarri errepaso eman, herritarrek egindako lana goraiatzeko, hainbat debek, zailtasun, isun eta ukazio jasanagatik ere «legalitatearen antindemokratikoen gainetik beren ahotsa eta iritzia jartzen asmatu zutelako» eta bozka bakoitzarekin «Euskal Herriak nazio gisa dituen eskubideak errespetatuak izatearen aldeko hautua» egin zutelako.

Edozein moduz, legalitatearen izenean egindako hainbat eraso aipatzen dira mozioan, eta bi estatuek darabilten estrategia bereziaren barrenean sartzen ditu jokatutako horiek eta baita «herritarrek hauteskontzietan emaniko iritzia bizkarra emanez» egin zen udalen osaketa ere, hiritarrak «eskubide zibil eta politikorik gabe utzi eta bigarren mailako herritar izatera kondenatu» omen zirelako.

LEITZA ▶ KULTURA

Herriko etxe eta baserrien argazkiak ikusgai erakusketan

Astelehenean koloreen arabera munduan zehar bidaiatzeko aukera izan zen eta gaur berriz Gerra Zibilari errepaso



Joxe Migel Elozegi erakusketan aretoan. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Kultur Asteko egitarauaren barrenean, egunero erakusketak desberdinak daude ikusgai udalaretoan, 19:00-etatik 20:00-erata eta gaurtik hasita orri honetan berean, guztiek errepasotxo bat emanen zaie. Gaurko, batzar aretoan dagoena aukeratu da: *Leitza 1974-2004*.

Egilea Joxe Migel Elozegi leizarra da. Oraingoan, herriko etxe eta baserrien inguruan, Leitzak azken 30 urte hauetan

zenbateko aldaketa jasan duen erakutsi nahi dio bertaratzen denari. Ez omen du kontatu zenbat etxe edo baserri desagertu edo aldatu diren. Bere asmoa aldaketa horren irudiak jasotzea omen da.

Guztira 450 argazki inguru daude, herriko etxe eta baserrien artean. Etxe bakoitzeko bi, bat egungoa eta bestea 1974. urtekoa. Argazkiak egitekoan berak erabili duen irizpidea «herrian, izena zuten etxei atera nizkien argazkiak eta baserrietan berriz, noizbait

bizileku izana». Garai hartarako jadanik zenbait herriko etxe desagertuta zeuden edo osotara itxuraldatuta eta hori dela eta ez daude ikusgai. Beste batean berriz, Maxurrenean, argazkia ateratzeko baimen berezia lortzera behartuta zegoenez, hutsik ageri da.

Kolarezko bidaiak

Asteleheneko Jon Arretxeren diapositiba emanaldian ostilekaren koloreak oinarri izanez, munduan zehar bidaiatzeko aukera izan zuten bertaratu ziren ikusleek. Koloreek euskal usadioan duten esanahia kontuan hartuz, bere bidaietan «munduko edozein lekutan, kolore guztietako, ohiturak, gertaerak, jendeak eta parajeak» aurkitu omen ditu.

GAUR ▶ HITZALDIA

Gaia. Navarra, 1936. *De la esperanza al terror.*
Hizlaria. Josu Txueka.
Ordua. 20:00.
Tokia. Zinema.



Amazabal BHIko ikasleen kontzertua

LEITZA ▶ Atzo arratsaldean, Leitza, Lekarotz eta Altsasuko ikastetxeetatik etorritako 300 ikasleek kontzertua eskaini zuten Amazabal pilotalekuan. Ikasturtean zehar gazte hauek ikasitakoaz gozatzeko aukera ezin hobea izan zuten hara bildu ziren ikus-entzuleek. Aurten

zinema musika dute gaitzat antolatuta dituzten kontzertuetarako eta doinuen eraginez, hainbat film ezagunetan murgiltzea ez zen zaila izan, hainbeste musikariren indarrez. Bihar-etzitan berriz, Bera eta Lekarotzen joko dute, hurrenez hurren. J. ASTIBIA

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 6532112
Anoeta-Alkiza-Hernalde.
Medikua: 65 23 39
Asteasu. Medikua: 69 24 23
Berastegi-Elduain. Medikua: 68 33 61
Bidegoian. Medikua: 68 11 34
Ibarraldea. Osasun etx.: 672411
Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Lizartza. Medikua: 68 20 77
Tolosa.

▶ Ambulatorio, larriald.: 461111
▶ San Esteban: 00 68 00
▶ Gernikako arbola: 00 69 00
▶ Asunzio klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)
▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
▶ DYA: 67 25 36
▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
▶ Ertzaintza: 53 88 20
Villabona-Aiztondo.
Ambulatorio: 00 69 70
Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
▶ Taxia: 67 04 20
▶ Taxia (Leitza): 608 873016

KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04
▶ Aiurri aldiakaria: 30 07 32
▶ Ttipi ttapa ald.: 948 631888

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06
▶ Arramele-AEK: 67 12 14
▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIA

Gaur. Quetglas. Euskal Herria, 46, (Ibarran). 943 67 32 74.
Gimeno A. Elbarren, 52, (Leitza)

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info
Tolosa. 687 41 00 82 - 687 41 00 33.
tolosa@tolosaldeko-hitza.info
Villabona-Aizt. 687 41 00 22.
villabona_aiztondo@tolosaldeko-hitza.info
Anoetaidea. 687 41 00 22
anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info
Ibarraldea. 687 41 00 32.
ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info
Alegialdea. 687 41 00 34.
alegaldea@tolosaldeko-hitza.info
Leitzaldea. 687 41 01 18.
leitzaldea@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

ALOKAIRUA

Etxebizitza. Ingeles famili batek etxe bat behar du alokairuan abuztuan, Tolosan edo Ibarren. 943 67 00 52 / 943 67 12 75.



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Haur Eskolaz bilera. Bihar 19:00etan Kultur Etxean.

Leitza. *Navarra 1936 de la esperanza al terror* hitzaldia zineman 20:00etan.

Tolosa. Academia Lacunzako Cristina Lacunzak eta Ainize Orozek au pair, auzolandegi, e.a. joateko informazioa emango dute Kultur Etxean 20:00etan.

Zizurkil. Elbarrenako jaien bilera. Abulondoko kultur etxean 20:00etan.

ERAKUSKETAK

Alegia. Alejandro Gonzalez. Jubilatuen tabernan.

Tolosa. Soto eta Zulueta lanak Lanbroa tabernan.

Tolosa. Anjel Cuerdoren argazkiak. Aranburun.

Tolosa. Faustino Aranzabal. Aranburu Jauregian.

Tolosa. Maribi Iparragirre. Saikin tabernan.

Zizurkil. Sükrü Karakus. Abulondoko kultur etxean.

MUSIKA

Tolosa. Mikel Azpirozten taldea. 19.00etan Musika Eskolako areto nagusian.

ZINEMA

Alegia. *Poligono sur* filma Gazteetxean. 21:30ean.

Kolpeen doinuak

TOLOSA ▶ Eduardo Mokoroa musika eskolako perkusio ikasleek kontzertua eskaini zuten atzo Musikaria astearren barruan



Perkusio talde osoa egitarauko obra bat interpretatzen atzo Eduardo Mokoroa musika eskolan. J.SAIZAR

JOXEMI SAIZAR

Zazpi obra, hainbat soinu tresna, 11 interprete. Hori zen egitarauak iragartzen zuena. Urtero Eduardo Mokoroa musika eskolak antolatzen duen musika astean kokatuta, Musikaria, alegia.

Oraingo honetan perkusio tresnekin egunero ikasten eta lanean ari direnek eskaini zuten kontzertua. Ohiko bonboa, platiloak eta kaxarekin batera, soinu tresna sofistikutuagoak ere baziren: xilofonoa, marimba, bibrafonoa, bateria, kanpaiak, gong, bongoak, klabe-

ak... Kolpatuz soinua ateratzen duten tresnak alegia. Kolpez kolpe doinua osatzen joan ziren ikasleak, entzuleen gozamenarako.

Baina denak ez ziren ohiko instrumentuak izan. Mariclebren *Street beasts* obran ikasleek hainbat objektu erabili zi-

tuzten soinu tresna gisa: zabor kuboak, kristal botellak, galgetako kaxak, zartagia...

Guztira 11 ikasle aritu ziren musika interpretatzen. Maila desberdinetakoak ziren. Denak Jesus Mari Garmendia irakaslearekin aritzen direnak eta atzoko emanaldia bere zuzendaritzapean prestatu zuten. Ikasleetako birentzat maisuarekin prestatzen zuten azken kontzertua izan zen: Inaki Letamendia eta Gorka Otamendi. «Txiki-txikitan hasi ziren nirekin eta orain ikusiko dugu ea zer bait ikasi duten», esan zuen irakasleak *Duo* izeneko obraren aurkezpenean.

Musika motari buruz zer esan? «Moderno edo garaikidea dela esan daiteke», erantzun zigan kontzertuko interpretako batek.

Musika eskolako areto nagusian elkartu ziren entzuleek —ikasleak, irakasleak eta gurasoak gehienbat— ederki pasatu zuten bere ikaskideen, ikasleen eta seme-alaben interpretazioak entzuten eta ikusten. Bazueta gutxiesten diren soinu tresna berezi hauekin ere oso musika polita egin daitekeela erakutsi zuten atzoko musikariek.

ZORION AGURRAK ▶



ZORIONAK

M. Jose Jauregi eta Jesus Beldarrain. Gaur 25 urte ezkondu zinetela. Zorionak Asteasuko koadrilaren partetik.



URTE ASKOAN

Oier Arruebarrena (Ibarra).

Gaur 11 urte. Zorionak eta muzu handi bat amona, izebak, osaba eta Elorriren partetik.

HITZA,

zorion agurren

tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...
zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzara
(Araba etorbidea, 5 behea - Tolosa)

Mesedez, ekarri
argazkia bi egun lehenago.
Mila esker!